



STEE-EILASen eskaria 2012ko aurrekontuen aurrean

Zor publikoa gutxitzeko eta ekonomia suspertzeko aitzakiez gobernuek lan eta gizarte eskubideak suntsitu nahi dituzte. Eskubide horiek guk eta gure aurrekoek lortutakoak dira, hamarkadetako borrokaren bidez. Gobernu hauen politika ekonomikoak inork hautatu ez dituztenek definitzen dituzte. Merkatuen esku geratu dira gehienen lan baldintzak eta bizi baldintzak, gutxiengo baten diru goseak mugatzen ditu langileen eta jendarte osoaren aukerak.

Krisiaren sorrerarekin zerikusirik dugula sinestarazi nahi digute eta lotsarik gabe guztion artean ordaindu behar dugula ondorioztatzen dute; esfortzuak egiteko gonbitea luzatzen digute. Neoliberalismo atzerakoiaren eskutik zerbitzu publikoak, hezkuntza eta osasun sistemak barne, ahultzea dator, baita haien kalitatea kaskartzea.

Ildo honetan azken hilabeteetan Nafarroan ezarri dira murrizketa basatiak, eta orain Lakuako Mahai Orokorrean administrazioak proposatutakoa ezagutu berri dugu. Gasteizko gobernua politikak ekonomikoak diseinatzean eta gizartearen beharrei erantzutean porrot egin du, fiskaltza aurrerakoia ezartzeko gaitasunik ere ez dute, huts egite horien guztien errua funtzio publikoko langileon bizkar gainean bota nahi dute. Aseezinak dirudite, mota guztietako eskubideak murrizten ari dira, baina hori geldirik onartzeko prest ez gaude.

Langile guztiontzat ezinbestekoa den negoziazio kolektiborako eskubidea aldarrikatzeaz gain, Euskal Eskola Publikoaren defentsan arituko gara ere, hori baita herritar guztien hezkuntzarako eskubidea babesteko bide zuzenena, hau da, hezkuntza sistemaren ardatza izan behar duen sare publikoa indartzea eta bere kalitatea hobetzea. Hezkuntza gastua baino gizarteren garapenerako inbertsioa da eta.

Aurrekontuetan Hego Euskal Herriko bi administrazioek hezkuntza arloan murrizketak aurreikusten dituzte. Aurreproiektuetan agertzen diren hainbat datu gero eta ulergaitzagoak diren arren, ezin dute ukatu 2012rako hezkuntzaren gastuan jaitsiera nabarmentzen dela bai Iruñako baita Gasteizko gobernuan ere.

Argi dago hezkuntza ez dutela inondik inora ere lehenesten, UPN-PSNk eta PSE-PPk murrizketak ezartzeko asmo argia adierazten ari dira praktikan. Beste neurriek bezala aurrekontu hauek zerbitzu publikoak ahultzera eta eskubide laboralak murriztera datoz ere. Herritarrak eta arlo publikoko langileok ordaindu krisiaren ondorioak ordaindu beharko ditugu.

STEE-EILASen ez dugu onartzen gehiengoaren kontra eraso egitea krisiaren aitzakiaz. Proiektu hauek ez dira hezkuntzarako egokiak, hezkuntza inbertsio gisa ulertu ordez gastutzat hartzen baita berriro ere. Aurrekontuek pertsonen beharrianak asetzeko eta aukeren berdintasunaren alde jokatzeko tresna izan behar dute, instituzioek era konpentsatzailean erabili behar dituztenak. Beharrei erantzuteko nahi ditugu aurrekontuak, hain zuzen ere zerbitzu publikoak orokorrean indartzeko eta irakaskuntza publikoa bereziki.

Horregatik aurkeztu dituzten aurrekontuak erretiratzea eskatu behar diegu EAEko zein Nafarroako gobernuei, eta irizpide sozialak erabiliz berregin ditzaten, gehienen interesak defendatuz.

STEE-EILAS

Gasteiz, 2011ko abenduaren 13an.